

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Piramideetan lan egin nahi dut



Gizahko piramideak eraiki zituztenak esklaboak izan zirela uste izan dugu luzaroan, baina aurkitutako dokumentuek diote soldatapeko langileak zirela, eskubideak zituztela, eta, esaterako, lan absentismoa pentsatu baino ohikoagoa zela.

GIZAH (EGIPTO) K.A. 2500. IV. dinastiako faraoiak piramideak eraiki zituzten, hil ondorengo bizitzara luxu guztiekin joateko. Luzaroan piramideak esklaboek eraiki zituztela uste izan arren, orain badakigu langile erabat askeak zirela, eta ondo elikatuta eta antolatuta zeudela.

40 eta 60 langile arteko taldeetan antolatuta zeuden, talde bakoitza langileburu batek zuzentzen zuen, eta lanak ikuskatzeko idazlari bana ere bazuten. Idazlariak, lanak gainbegirtzeaz gain, administratzaile lana ere egiten zuten; “kontabilitate papiroak” bete eta eguneratzen zituzten. Langileen lan erritmoa, erabilitako materiala... idazten zituzten papiro horietan. Lan absentismoa ere jasotzen zuten dokumentu horietan, eta lanera ez joateko arrazoia onartuz gero, idazlariak papiroan idazten zuen. Hala, absentismoarako arrazoi “justifikatuen” zerrenda oparoa bildu dute arkeologoez –pena, arrazoi ez justifikatuen zerrendarik guregana ez iritsi izana–; gutxi batzuk aukeratu ditugu:

- Senitarteko bat baltsamatzea.
- Eskorpioi batek hozka egitea.
- Ospakizun baterako garagardoa prestatzea.
- Mozkortuta egotea.

– Senar-emazteen arteko eztabaida batean, emaztearen jipoia jasotzea.

Harrigarria bada ere, jaiegunez jositako lan egutegia zuten. Faraoia koroatzean edo hiltzean atsedean egunak izaten zituzten, eta egun seinaltatu horien urteurrenak ere jaiegun ofizialak ziren. Bestelako jai erlijiosoak ere bazituzten, Nilo ibaiaren uraldiak atsedean hartuta ospatzen zituzten, eta hori gutxi balitz, *epagomenoak* zituzten: 365 eguneko eguzki urtea osatzeko, egiptoarrek 360 eguneko zikloari bost jaiegun eransten zizkioten.

Gainera, errotazio sistema erabiltzen zuten: fisikoki gogorrenak ziren lanetan hiru hilabetez aritzen ziren soilik, eta gero beste lan arinago bat hartzen zuten. Sail honetan bertan azaldu genuenez (ARGIA, 2.185. zbkia.), piramideetako langileak izan ziren greba egiten lehenak (eta faraoiak langileen eskakizunei erantzun zien). Lan horren eragozpenik handiena segurtasun gabezia zen; lan istripuak oso ohikoak ziren, eta heriotza-tasa altua.

Baina, ziurrenik, esklabotzat genituen horiek ez ziguten inbidia handirik izango XXI. mendeko langile libreoi.



Arrastoak

Noiztik edaten
dugu helduok
esnea?

DUELA 7.500 URTE Erdialdeko Europan –egungo Hungaria eta Eslovakia iparraldean– gizakiak esne ganadua etxekotzen hasi ziren. Ohitura Europa osoan zabaldu zen pixkanaka eta, batez ere iparraldeko komunitateetan, helduak animalia esnea edaten hasi ziren, argitasun urriak eragindako D bitamina gabezia ordezkatzeko. Animalia ugaztunek, eta beraz gizakiek ere bai, edoskitzaroa amaitzean laktasa entzima ekoizteari uzten diote. Baina ohitura horrek aldaketa genetikoak eragin zituen Europan. Hala, munduko ia gizaki heldu guztiek ez dute laktasarik ekoizten eta esnekiekiko intolerantzia dute. Europar jatorriko gizakietan, aldiz, intolerantzia askoz urriagoa da. Londresko University Collegeko Mark Thomasen arabera, “europar gehienok laktasa ekoizten jarraitzen dugu bizitza osoan”.



LIFE